

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Ekainaren 16ra arte dago irekita arte-ikasketak luzatzeko beka eskuratzeko epea

*Kultura Departamentuak 232.000 euroko aurrekontua esleitu du deialdi horretarako.*

Lunes, 26 de mayo de 2014

Nafarroako Gobernuak hamar beka eskuratzeko deialdia egin du, 30 urte edo gutxiago dituzten Nafarroako ikasleek arte-ikasketak egiten jarrai dezaten estatuko edo atzerriko zentroetan. Horrez gain, aurreko urteetako beka luzatzeko deialdia ere egin du. Deialdia astelehen honetan argitaratu da [NAOn](#) eta 232.000 euroko aurrekontua du. Interesa dutenek datorren ekainaren 16ra arteko epea dute [eskaera egiteko](#).



Aurreko deialdi bateko arte-ikasketen bekadunak.

Arte plastikoen ikasketetarako bi beka emango dira, ikus-entzunezkoetarako beste bi, arte eszenikoetarako hiru eta musikako ikasketetarako beste hiru. Lehiaketan parte hartzeko, Nafarroan jaiotako edo erroldatuta egon beharko da 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen, 30 urte edo gutxiago izan behar dira eta kasuan kasuko ikasketen titulu akademiko ofiziala izan edo eskuratzeko gertu egon behar da.

Arte eszenikoko eta musikako ikasketen kasuan, estatuko edo atzerriko zentro ofizialetan hautapen-proba gainditu dutenek edo entzute handiko zentro pribatuetan ikasketak ez ofizialak egiten hasteko hautatu direnak ere eskatu ahal izango dute beka.

Atzerrian trebatzeko programa baterako beka eskatzeko orduan, hizkuntza-eskola ofizialek emandako oinarritzko zikloko edo maila ertaineko (B1) ziurtagiria edo ofizialki baliokidea dena ere beharko da, ikasketazentzua dagoen herrialdeko hizkuntzarena edo, hala eskatzen denean, zentroak eskatzen duen hizkuntzarena. Eskatzen den mailara iritsi dela baieztatzen duen ikasketazentzua frogatu behar da.

### Beken zenbatekoa

Bekaren gehienezko zenbatekoa matrikularen edota hileroko kuoten, egonaldiaren eta aseguru-polizaren kostua batuta ateratzen dena izango da. Matrikula edota hileroko kuotak ordaintzeko diru-laguntzaren zenbatekoa kostuaren % 100 izango da, 2.500 euro gehienez, aurrekontuak horretarako aukera emanaz gero.

Egonaldia ordaintzeko, eta ikasketen denboraldian zehar, 9 hilabetez gehienez, bekadunak 500 euro eskuratuko ditu hilean egonaldiak Espainian direnean eta 700 euro egonaldiak atzerrian direnean.

Onuradunak aseguru-poliza ordaintzeko gastuetarako ere laguntza jasoko du, aurrez justifikatu ondoren eta 100 euroko muga izanik. Atzerrian bizi bada, 600 eurokoa izango da laguntza, baldin eta Gizarte Segurantzaren estaldura lekuz aldatu ezin badu.

### **Eskaeren aurkezpena eta epeak**

Interesa dutenek Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuaren erregistroan (Nabarrería kalea 39, 31001 Iruña), [Nafarroako Gobernuaren erregistroetako](#) batean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen [30/1992 Legearen](#) 38.4 artikuluan jasotako edozein bulegotan edo, Internet bidez, Foru Gobernuaren [zerbitzuen katalogoan](#) aurkeztu beharko dituzte [eskaerak](#) eta beka luzatzeko eskaerak.

Kultura Departamentuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez onetsiko da onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda, eta abuztuaren 4tik 8rako astean entzunaldi eta elkarrizketak non egingo diren zehaztuko da. Ebazpena Kulturako Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuaren (Nabarrería kalea 39, Iruña) iragarki-oholean eta Nafarroako Gobernuaren web-orrian ([http://www.navarra.es/home\\_es/servicios](http://www.navarra.es/home_es/servicios)) argitaratuko da. Ebazpenaren berri eman ondoren, onartzen direnek interpretatuko dituzten bariazio, antzezpen edo musika-piezen eta horien iraupenaren berri emango diote Arte Sorkuntzaren, Ekoizpenaren eta Zerbitzuen Atalari.

Bestalde, Kulturako zuzendari nagusiak emandako ebazpen bidez ere emango beka eta horien luzapenak ere. Ebazpen hori entzunaldiak eta elkarrizketak egiten direnetik zenbatzen hasita gehienez bi hilabeteko epean emango da. Era berean argitaratuko da azken ebazpen hori.